

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Kamioi, autobus, karabana eta autokarabanentzako udal aparkaleku-plazen aprobetxamendu bereziagatiko tasa. 2020. urtea.**

238/27/2020-9 zenbakiko Tokiko Gobernu Batzarraz onartu da 2020ko Kamioi, autobus, karabana eta autokarabanentzako udal aparkaleku-plazen aprobetxamendu bereziagatiko Tasa.

Onetsitako Errolda Fiskala jendaurrean izango da 15 eguneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarkia argitaratuz eta Udaletxeko iragarki oholean jarriz, interesa dutenek aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzaten. Erreklamazioak aurkezten ez bada, iragarki honek aipatutako kontzeptuaren zergapekoei zuzendutako jakinarazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Epea

Ordaintzeko epea azaroaren 15etik abenduaren 31era.

Helbideratuta dauden ordainagiriak kobratzeko eguna

Abenduak 1.

Ordaintzeko tokia eta modua

Ordainketa helbideratuaren bidez edo ondorengo finantza entitateek dituzten bulegoetako edozeinetan: Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Rural Kutxa edo Sabadell Guipuzcoano.

Borondatezko ordainketa epea amaitutakoan, betarazteko epealdia da, eta hura hasteak ordaindu gabeko zorrari dagokion zenbatekoaren %20ko gainkargua sortuko du, bai eta atzerapen interesak ere, betearazteko epealdia hasi unean sortuko direnak, gastuak eta kostuak. Hala ere, gainkargu %5 izango da, ordaindu gabeko tributu-zorra jakinarazitako premiamendu probidentzian adierazitako epeetan egin bada.

Derion, 2020ko azaroaren 4an.— Alkateak